

ZURE ISPILUAREN XIMURRAK

Nerea Eizagirre Telleria, 17 urte

Zumaia

Bazeneraman ordu-erdia ohean batera eta bestera, maindireak zorabiatzeraino. Ordu-erdia luze egin zaizu, maiteñoaren zain egon ohi zinenean iruditzen zitzaizun bezain luze, baina ezberdina, inondik ere. Gaur iratzargailuak noiz joko zain egon baitzara, eta egote horretan, egia esateko, ez zenuen ez tximeletarik, ez ametsik. Ohean etzanda inongo itxaropenik gabe itxaron duzu eguna, esperantzarik bako espero zozoan murgildurik.

Zure zorionerako, iratzargailua dantzan hasi da azkenean, eta orduantxe, jaikitze baimena eman diozu zure buruari. Segidan, gelako leihoak zabalteari ekin diozu, eta berehalakoan begiak hertsi behar izan dituzu, egunaren printzek ia-ia itsutu baitzaituzte. Bizkarra eman diozu egunari, bizkarra eman argiari, eta hanka kirrinkariak kirrikaka jarriaz komunera jo duzu.

Seko urratutako moketa merkea zeharkatuz, lorez apainduriko baldosetara igaro zara. Baldosatik baldosarakoan, inertziaz edo, lepoa luzatu duzu, eta burua altxatu ispiluari begiratzeko. Eta

hortxe topatu duzu kristal zati maltzurra, zure zain zegoela zirudiena. Bere baitan hartu zaitu zital halakoak, eta zuk harengandik urrundu nahi izanagatik, hortxe zauzka zeharo harrapatuta, berari atxikita.

Esan nahiko zenioke gezurretan ari zaizula, zeure begiak ez direla berak margotzen dizkizun bi kanika orlegi-apal otzanegi horiek. Zeureak, pinporta berdeak baitira, Aralarko larreen kolorekoak. Halere, ez zara ausartu ispiluak esandakorik ezbaian jartzen. Ez zara ausartu ez, akaso, badakizulako nahigabeak zure niniak emetu dituela. Orduantxe itzuli diozu soa kristalari, eta begi eme pareak aurrez aurre duen irudi errukarria onartzen hasi zara.

Irudi errukarri hori bidaltzen dizu ispilu iruzurtiak. Bai, begi emeei horien parean duzuna gezurra izan behar da nahitaez. Baina ez, esperantzak esperantza, erratuta zabilta, izan ere, amatatutako izar pareak aurrean duena zeu zara. Beno, zeu omen zara. Ispilu gezurtiak halakorik baieztatu izan ez balizu ez baitzenuke ezagutuko zeure burua. Kristalak bidalitako gezurren artean, ttantta gazia egunetan ondutako begizulo sakonetatik barrena doana ikusi duzu, masail erorietatik behera suizidatzeraino.

Orduantxe, atzamar hezurtsua ttanttarantz gerturatu duzu, zeina “lasai tiki, lasai” esanez hasi zaion. Ez zaizu ttantta gazi gehiagorik jausi. Egia esateko, betidanik miretsi izan dut zeure trebezia hori. Bai, barrena dantza-dantzari aritu izanagatik

nekez ihesten baitzaizu malkorik begi ertzetik, bizitzak zaildutako emakumea baitugu geure Manterolatar Pili. Zeu eta zeure belaualdikook, gerraosteko haurtxook, erreka gaziei biderik ematen ez dakizuela esango nuke. Baina beno, ulertzekoa da, *treintaixeixeko* garaietan usaindutako odollezko ibaien itzalak hezi baitzintuzten.

Haiek, ordea, beste garai batzuk ziren, eta gaur, gaurkoak lapurtzen dizu loa. Gaurkoa saihestezina da, bizitzaren erritmoa bera baita. Alferrik dira, maite, geure eginahalak, geure saiakerak, geure zikloa den *arin-arin* arinegian, alferrik baita patuari erronka botatzea. Alferrik da, ororen gainetik, bizia ematen digun naturak epaitzen baikaitu.

Gertatua ezin irentsirik, jira-biran dabilkizun gogoia berriz ere ispilurantz zuzendu duzu. Berriz ere kristalari so, haren gezurti izaeraz gogoetan jarri zara, eta ohartu, oker zabiltzala, ile-apaindegiko tinte merkearen atzean dagoena zeu baitzara. Orduantxe, harrotasunez heldu duzu ile mototsa, eta ispilurantz gerturatu zara ilezuztarren jaiotza begitantzeko. Azaleko ile urdinak ikusi dituzu, ile urdin-urdinen larrea zeure buru gainean, nola elurrezko soinekoa Belagua gainean.

Ez zara oroitzen noiz margotu zenuen ilea lehenekoz, baina bai, badakizu azkenaldion 3 astean behin egin behar izan duzula, osterantzean, berehalakoan urdintzen baitzaizu. Gogoeta xume horretan, jabetu zara zeuk ere ile urdina katamaloze estaltzearen zioa ez dakizula. Ez dakizu, baina bueno, esango nizuke, askotan ez dagoela arrazoi-

rik geure bizitza honetan. Gizarteak berak ematen baitizkigu pausoak, eta gu horiexetara mugatzen baikara. Horrexegatik, zeuk ere ez duzu arrazoi jakinik aurkitzen zeure ilajea urteetan hala mozo-rrotu izateko.

Ileak lasai, libertatez askatuz, eskua norabidez aldatu duzu eta kopeta igurzten hasi zara. Hortxe, azala azalaren kontrako gudan antzeman duzu bizitza bera. Zulotxotik zulotxorakoan, istorioak eta historia idatzita duzunaz jabetu zara. Kopetan, masailetan, lepoan, dunak eta sakonuneak ukitu dituzu, eta irria marraztu zaizu, “Sahara motz honen aldean” otu baitzaizu. Lehengoan basoan ikusitako zatitutako enborrharen oinaren irudia gogoan duzu oraindino, hark zituen eraztun pilek agerian uzten baitzuten bere antzinatasuna. Zeure zulotxoak ere antzerakoren bat dira, esango nuke, bizitako egun bakoitzeko, isuritako malko bakoitzeko, edo akaso, egindako irri bakoitzeko, ximurtxo bat sortzen zaigula geure azalean, horrelaxe, geure bizitzaren erliebea sortzeraino.

Ez dakit azalpen zientifikorik ba ote den, esango nuke malkoekin zerikusirik ez duela, osterantzean zeuk azala leun-leuna izango baitzenuke. Irri bakoitzeko sortzen direnak ere ez nau larregi konbentzitzen, ez dakit zer esan, marmartienei ere ez baitzaie ximurrik falta. Azalpenok azalpen hutsal, malko eta irrien arteko sokatirek sortuko dituzte apika ximurrak. Bai, ez da horren gaitza Pena bera eta Bozkarioa soka-tiran jo eta su irudikaraztea, jo eta su, izerditan blai, azal leuna konkortsu bilakatzeraino.

Natorren harira, ordea, galtzen ari bainaiz, zure atzamarrak zeure erliebean galtzen ari diren bitartean.

Ispiluari bizkarra eman diozu azkenean, bizkarra eman ikusi nahi ez duzun “zu” horri. Bizitzako une bakoitzeko “zu” ezberdin bat izan baitzara. Pili haur jostaria, Pili neskato apaina, Pili ama jatorra, Pili amona kuttuna... Unean unekoak bizi izan zaitu, unean uneko “zu” izan zara. Baina gaurkoan, zaila zaizu gaurko “zu” izatea, zaila izaten jarraitzea bera ere. Horrexegatik eman diozu bizkarra “zu” horri, akaso oraindik zuk ere ez dakizulako nor den, eta ez dakizulako nolakoa izan “zu” errukarri horren baitan.

Baina lasai, maite, lasai, denborak irakatsiko dizu izaten. Eta denbora aipatu badut, aipatu dut. Izan ere, huraxe da zure areriorik zitalena, bai, etsairik amorratuena. Epe batetik aurrera, hark sortzen baitzikigu erliebeak larruan, jaitsi bularrak, urdindu ilajea, emetu soa, urtu bihotza, eta horrelaxe, apurka-apurka zimeltzen gaitu, usteltzen gaitu, amaieran, behin eman zigun hura lapurtzeraino.

Hortaz, denbora ez duzu alde, baina zorioneko izan behar zenuke, oraindik ez baitzaitu erabat amatatu. Amatatu ez, baina akaso, izana lapurtu dizu, edo behinik behin orain arteko Pili lapurtu du. Gaur amatatuta zaude, etsita, goibelduta, atzo, Natura madarikatuak Denbora lagun zuela, Joxe itzali zutelako betikotz. Bai, inolako abisurik gabe, inolako ohartaldirik gabe, laurogeita pikuko gizo-

nari motorra itzali zioten. Maltzurak halakoak! Zuk azokatik bueltatzerakoan han topatu zenuen, Joxe izan zenaren azken isla lurrean zerraldo. Otu zitzaizun haren alboan egon bazina, akaso, Herio urrunduko zenutela, baina oker zabiltza, Naturak hautua egina badu, saihestezina baita.

Eta gaur hementxe zaude, ispiluari begira, Denborak eragin dizuna antzematen. Zahartzaroa bera zara, esperientziaren iturria, edo bizipenen gordailua. Otu zaizu azken urteotan aberastasunez blai sentitzen zinela, inoiz baino bizi-gogo handiagoa zenuela. Baina atzo gertatuak dena pikutara bidali du, eta zuk ere, emakume gogor horrek, ez dakizu aurre egiterik izango ote diozun. Segidan, Denbora edo Natura edo Bizitza edo auskalo zer madarikatzeari ekin diozu, bizitzan zehar gehien maite izan duzuna lapurtu dizutelako.

Ispiluak eta isla etsiak, isla etsiak eta ispiluak atzean laga, eta pipien bazka den haritzezko armairutik soineko beltza hartu duzu, azkenaldion sarriegi jantzi duzuna. Jantzi beltzetan biltzera ohitzen ari zara, azokan gero eta lagun gutxiagorekin topatzera, edo parkeko bankuan gero eta hutsune gehiago ikustera ohitzen ari zaren heinean. Eta soineko iluna janztea beti zaila bada ere, gaurkoa are nekezagoa da, behin eta berriz soinekoak erantzi dizkizun hori agurtzera zoazelako.

Armairuari ateak itxi dizkiozu, eta hortxe utzi hura bakarrik, bakar-bakarrik, pipiek jaten duten bitartean. Agian, geu ere armairuak gara, hasieran zuhaitz basatiak, eta gero, denbora joan ahala,

inguruko arotzen laguntzaz armairu bilakatzera heltzen gara. Gure gorentasuna lortzen dugu, eta segidan, gorentasunaren ostean, pipiak josten zaizkigu ezpal artera. Pipiak egurra higituz, nola Denbora gizakiak janaz.

Bai, armairua bakarrik utzi duzu, eta zu ere bakar-bakarrik eseri zara gosaritarako, nahiz eta seme-alabak laster etorriko zaizkizun. Inguratuta bizi gara, etengabe gaude albokoekin harremanean, baina egia esateko, bakarrik jaiotzen gara, bakarrik hiltzen garen bezalaxe.

Katilu bete kafe harturik mahaian eseri zara. Kafea beltz dago, gaur inoiz baino gehiago, eta gainera, azukrea botatzea ahantzi zaizu. Lehendik nahiko garratza ez, eta katilurantz erortzen zaizkizun ttantta gaziek are mingosten dute kafea, kafe iluna.

Gazi samarrak egingo zaizkizu egunok, hemen-dik aurrerako egunak, baina beno, *c'est la vie* diozu barrenerako, eta kikara ahorantz hurbiltzen jarraitu duzu. Berehala joko dute etxeko txirrina, gero emango dizkizute besarkadak, dolu-minak, baina beno, dena bukatuko da.

Zuk, ordea, badakizu zailena gero etorriko dela, inor ez baituzu alboan izango azukrea ahantzi duzula ohartarazteko. Kafe garratzetan garratzena hartuko duzu egunero, baina aurrera jarraituko duzu, eta akaso, denborarekin zeure kabuz azukrea botatzeaz oroituko zara. Beti ere, Denbora etsaiak horretarako beta ematen badizu.

Horrelaxe joango zaizkizu hemendik aurrerako egunak, joango zaizkizu egunak, joango zaizkizu... joaten zaren arte.